

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Berako barrutian izandako harri-jausi batek N-121-A errepideko errei bat moztera behartu du

Jausia iragan ostegunean gertatu zen kilometro-puntu berean izan da

Martes, 25 de junio de 2013

Gaur goizean beste harri-jausi bat izan da N-121-A errepidean (Iruña-Behobia), Bera parean eta iragan astean gertatu zen puntu berean (63+200 KP). Lehengo Arkaitza harrobiko ezponda harritsutik etorritako materialak errei bat moztea eragin du eta ibilgailuak ordezkoko beste pasabide batetik bideratzea.



Ezponda egonkortzeko lanak, Beran.

Sustapen

Departamentuak jausiak gertatu diren lursailaren enpresa titular 'Hormigones y Morteros Preparados, S.A.' enpresari eskaera egin dio ezponda egonkortzeko lanak egin ditzan. Horretarako, altuerako lanetan espezialista den talde bat (INACCES) kontratatu du, eta haiek, alde batetik, ezponda berraztertuko dute, eta bestetik, ezegonkor geratu diren harri-blokeak kenduko. Lan horietarako, beharrezkoa izan da errepidean segurtasunezko leku bat finkatzea erreia moztuz eta ibilgailuentzako beste pasabide bat jartzea saneamenduko nahiz egonkortzeko lanak iraun bitartean; dena den, ezin da jakin lan horiek zenbat iraungo duten.

Zirkulazioa seinalegileekin arautzen ari dira lan-ordutegian eta, handik kanpo, semaforoan bidez. Gainera, "new jersey" hormak jarri dira galtzadaren ardatzean eta kabailoi bat egin da harrobiko materialarekin eror daitezkeen harriak hartzeko.